

Zure bila gabiltza!



Urtean
35 euroren
truke
hirukalagun egin
zaitez. Zergatik?
Segi irakurtzen

...

hiruka, argi

2015eko urtarrilaren 22an argitaratu zen HIRUKA paperezko astekariaren lehenengo zenbakia. 2017ko ekainaren 22an plazaratu da 100. zenbakia; biribila, urte bi eta erdiren ostean, beren beregi. Zure bila, zuri eta zure begira, orduan eta orain. Zuretzat eta zuregatik delako HIRUKA; zeugaz ez bada, ez duelako izaterik, zu eta biok garelako HIRUKA, zu barik ezinezkoa delako HIRUKoA! Letraz zein zenbakiz, argi eta garbi, barruak husteko egundoko ordua da; opetsitakoak eta ospatzekoak, jasotakoak zein eskatzekoak paperera ekartzeko egitekoa dago, beharrik! Zure bila gabiltza, uribekostar euskaldun hori!

Taldea

Lau kazetari • Argazkilaria • Publizitate-arduraduna • Administraria • Kudeatzailea • Zuzentzaile fina • Maketa-sortzaile nekagaitz bi • Banatzaile bizkor bi • Telefonoa, ordenagailua, sarea, programak, grabagailua, boligrafoak, kamera, mikroa, koadernoak, inpresora, Interneta, argindarra, bulegoa, inprenta, gasolina... • HIRUKA bazkideak eta HIRUKAlagunak, gogoz eta ekinez, burutik bihotzeraino, elikagaiz eta diruz, egileak eta bultzatzaileak. • Eta zeu: barrikoztar, berangoztar, erandioztar, getxoztar, gorliztar, leioztar, lemoiztar, plentziar, sopoloztar eta urduliztar hori; gure iturria, informazioaren sortzailea eta emaila.

Aurrekontua

Eskualdearen, beharren eta egitekoen azterketa egin zen tokiko euskarazko komunikazio-talde bat sortzeko, eta **horien arabera aurrekontua: 473.000 euro**, gastuak eta sarrerak aztertuta. Aurrekontu horrek ereduazko egoera aurkezten du, hau da: beharrezkoak liratekeen baldintzak, baliabideak eta betebeharrak asetzeko; bazkide eta HIRUKAlagunen kopuru aproposa; diru-laguntza egokiak eta beharrezko publizitate-ekarpenak. Apropos, egoki eta beharrezko horiek lortzeko **ahalegin agorrezinean gabiltza oraindino**. HIRUKAk dituen giza baliabideakaz eta baliabide ekonomikoakaz itzelezko esfortzua egiten dugu egunez egun. Zure eta bion onerako litzatekeela badakigulako, HIRUKaren helburu nagusia da aurrekontu horretan agertzen diren gizon-emakumeengana heltzea: **Zure bila gabiltza**.

Diru-sarrerak

Batetik, sortzaile, bultzatzaile, erabaki-hartzaile, irakurle, maitale eta eskualdearen eta bertokoen berri euskaraz jasotzea zein garrantzitsua den badakiten **HIRUKAbazkideen eta HIRUKAlagunen ekarpenak**; bestetik, euren bezero zuzenak HIRUKA irakurtzen dutela ondo dakiten **publizitate-jartzaileak**, eta, azkenik, gure hizkuntzaren bizitza normalizatze bidean tokiko euskal komunikabideen jarduna beharrezkoa dela sinesten duten **erakundeen diru-laguntzak**.

Gastuak

Lan-orduak, lan-tresnak, inprenta eta banaketa. 8.000 ale HIRUKA bakoitzeko astean behin, ehun biderrez, 800.000 orrialde baino gehiago Uribe Kostako koloreez beteta; ahaztu barik, agerkari digitaleko milaka eta milaka albisteak, bideoak eta argazki-bildumak. Alokairu-gasturik ez dago, Getxoko Udalak leku bat uzten diolako HIRUKari; eskertu beharrezkoa. Aurton, HIRUKA astekariaren 33 zenbaki kaleratuko ditugu. Duinak, kalitatezkoak eta puntakoak izateko, eguneroko ahalegina, zenbakaitza.



eta garbi



Burua eta bihotza

Bazkideak, 29; bi gutxiago (euren jarduna eten dutelako). HIRUKA lagunak, 464. Bihozkada eta pentsamendu horiek barik, ezinezkoa! Uribe Kostan euskaldunak eta ia euskaldunak 100.000 lagun baino gehiago gara! Bizitzeko taupada eta ideia biziak baditugu, baina erritmoa bizkortu ezean... Talde, elkarte edo lagun uribekostar euskaldun hori, buru-bihotza ez bazara, zure bila gabiltza!

Hezur eta muskuluak

Asteroko, hileko edo noizbehinkako dendari, tabernari eta sustatzaileak; «txikiak» gehienak, guztien arteko garrantzitsuenak, bertokoak. Euren bezero zuzen-zuzenak HIRUKA-irakurleetan zenbatzen dituztenak. Irakurle eta kontsumitzaile, esku artean eta begi aurrean, parez pare. Uribe Kosta ez gura bezain euskaldun batean, balizko publizitate-aukerak itzelak izanda ere, eta krisialdia tartean izan dela, ahaleginak eta bi egin arren, ez dira izan gura bestekoak, ezta behar bestekoak ere oraindino. Ikusi dituzu? Zure bila ere bagabiltza.

Odola

Uribe Kosta eskualdeko 10 udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Bakoitzak berea, eta berak erabakitzen duen orduan: urte hasieran, erdialdean edo amaieran. Udalei, euren herriko euskaldun bakoitzeko 1 euro eskatzen diegu, gutxienez; justua 1,50 euro litzatekeela jakinaraziz. Aldundiari eta Jaurlaritzari legokigukeenaren eskaera egiten diegu, urtero, bestelako euskarazko hedabideakaz lehian. Jaurlaritzak hainbat urteko hitzarmena aldeztu du, atzenean, eta horrek zelanbaiteko egonkortasuna ekar dezake. Iazko zero edo huts batzuk aurreko urteko zenbateko bihurtzeko erdibidean dira aurton; batzuek behera egin dute, beste batzuk berreskuratzeko bidean dira, eta apur baten batek gora egin du. Bizitzeko beharrezko bezain eskertu beharreko jarioak.

2015/2016 dirutan

Diru-sarrerak

	2015	2016
Getxo	51.681,00 €	56.849,00 €
Erandio	18.500,00 €	13.500,00 €
Leioa	15.000,00 €	15.000,00 €
Berango	9.000,00 €	6.888,00 €
Urduliz	1.652,89 €	1.652,89 €
Plentzia	826,45 €	1.652,89 €
Sopela	8.792,00 €	0,00 €
Gorliz	1.652,89 €	1.652,89 €
Barrika	909,09 €	909,09 €
Lemoiz	123,97 €	123,97 €
Udalak guztira	108.138,29 €	98.228,73 €
Eusko Jaurlaritza	32.431,00 €	38.345,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia	50.791,00 €	41.465,00 €
Kontratazio diru-laguntza	9.000,00 €	0 €
Bazkide-kuotak	9.020,00 €*	1.271,00 €
HIRUKA lagunak	14.660,00 €	10.857,00 €
Berbakoren ekarpena	28.083,64 €**	0,00 €
Publizitate eta sustapena	59.692,74 €	57.983,66 €
GUZTIRA	311.816,67 €	248.150,39 €

* 2015ean bazkideek egin dako lehen ekarpena barne dago.

** Egitasmoa martxan ipintzeko aurrez batutakoa.

Gastuak

	2015	2016
Soldata gordinak	161.246,33 €	149.545,75 €
Gizarte Segurantzza	52.888,80 €	44.489,22 €
Soldata guztira	214.135,13 €	195.486,75 €
Prestakuntza	0,00 €	1.451,78 €
Beste gizarte gastuak	0,00 €	0,00 €
Ekoizpena eta banaketa	81.955,50 €	74.525,81 €
Alokairuak	0,00 €	0,00 €
Funtzionamendu-gastuak	12.489,54 €	4.301,69 €
Harpidetzak	400,00 €	864,86 €
Publizitate eta sustapena	2.722,50 €	327,76 €
GUZTIRA	311.702,67 €	275.506,87 €

Arnasestuka ez ibiltzeko, okerrera ez jotzeko eta sasoi bete-betean egoteko, uribekostar euskaldunok gura dugun eta erabakiko dugun komunikabide bat izateko ahalmena edukitzeko, ehuntzen jarraitzeko, hirukoiztea aukeran izateko... **zure bila gabiltza!**

Egin zaitez hirukalagun, txanpon baten truke



Ez daukazula HIRUKArentzat 1 euro? Ezin duzula 1 euro gorde asteen zure herriko eta eskualdeko berriak, jazoerak, asmoak, ametsak, eztabaidak eta bizilagunak edo zu zeu lehen-mailako protagonistatzat dituen komunikazio-proiektuarentzat? Hilean 3 euro baino gutxiago balio du diruz zenbatuta HIRUKAlagun egiteak... Gure aldetik, orain artekoa ahalegin biziko plazera izan da, ehun aldiz esango genuke. Eta gozatzen jarraitzeko... Zer da euro bat?



Zurito bat

Edo mosto bat. Edo urteko ardo bat. Edo gilda bat. Benetan ez daukazula, asteen behin, guretzat euro bat gordetzeko aukera? Hilean 3 euro baino ez!

Gimnasioko egun bateko kuota

Egundo joaten ez zaren gimnasio horri egunero ematen diozu euro bat (edo gehiago). Zergatik ez diguzu ba, asteen behin, euro hori guri emango? Ez ahaztu burua entrenatzea ere gomendagarria dela; sudokugintza aukeran izango duzu, besteak beste!



Goxoki bat

Goxo-goxo eguenetan labetik irteten den bertoko informazioz egindako eta euskaraz digeritzen erraza denaz gozatzeko ez daukazu asteen karamelu baterako beste?



35 euro, hamaika onura



Hirukalagun bazara, zer lortuko zenuke? Astekaria gainontzekoek baino lehenago, eguaztenean, e-mailean jasoko duzu, inprentara bidean dela; eta zozkatzen ditugun egundoko sarietan lehentasuna izango duzu. Horrez gainera, HIRUKAren buru eta bihotza izango zara, uribekostar euskaldun biziduna, bertoko informazioan jantzia eta bertoko historiaren protagonista.

Sariak

Liburuak. Diskoak. DVDak. Umeentzako opari bereziak. Parapente-hegaldiak.



Zaindu zaitezen

Bazkariak. Afariak. Aste-akabuetako egonaldiak. Tratamendu estetikoak. Ilea ebakitzeko txartelak.



Sarrerak

Antzerkirako. Magia eta pailazoen ikuskizunetarako. Kontzertuetarako. Zinemarako.



«Doakoa bada, zertarako?» «Diru-laguntza pilo bat jasotzen dituzte!» «Euskaldunek bakarrik ulertuko dute» «Orain arte biziraun badu...» «Zein onura du niretzat?»

Uribe Kostako egunerokotasunaz eta bizitzaz **ez duzu ezertxo ere jakin gura?** Bertoko historiaren eta istorioen berri izatea **ez du merezi?** Uribekostar protagonistei, zeuri edo zure herrikideei, daukaten benetako garrantzia ematea **ez da beharrezkoa?** Herriko kirolari eta taldeen lorpenak lehen mailakotzat jotzea **ez da garrantzitsua?** Udalerriko kultur eragileen eta sortzaileen lana eta eskaintza **ez da ezagutu beharrezkoa?** Eskualdera bisitan datozenek esateko dutena entzuteko aukera eskaintzea **ez da baliozkoa?** Eskualdeko iritziz-politikoaren berri izatea **ez da zure erabakitze-prozesurako onuragarria?** Erakunde publikoen egitasmoak eta erabakiak jendarteratzea **ez da egin beharrezkoa?** Eta hori dena, letraz, irudiz eta zenbakiz **ez duzu jaso gura?** Euskaraz jaso ahal izateak ez du berebiziko garrantzirik? **Horri guztiari doakoa deritzozu? Doan egin daitekeela uste duzu?**

Aurreko galderek pentsarazi badizute, zure bila gabiltza, bihotz, buru, hezur, muskulu edo odol.
Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337 • administrazioa@hiruka.eus

Albuma



Shibuya, Tokio (Japonia)



Avellanas hondartza, Guanacaste (Costa Rica)



Parlamentua, Budapest (Hungaria)



Utrecht (Herbehereak)



Serekunda (Gambia)



Aizkorri mendia, Gipuzkoa



Hagia Sofia meskita, Istanbul (Turkia)



Gurutzetako ospitalea, Barakaldo

Bidaia maite ditu edonora joateko eta edonon egoteko asmoz sortu denak; badakielako eurakaz batera urrunera heltzeko aukera daukala. Zuen besapearen babesean, Afrika, Asia, Hego zein Ipar Amerika eta Europa ezagutu ditu HIRUKAk; eskerrik asko! Ozeania eta poloak ezezagun zaizkio, oraindino... Bestelako bidaia batzuk eroangarriago bihurtu izanak ere poztien gaitu! Nongura egon gaitezen, zure esku artean har egizu HIRUKA; Ilargitik ere Uribe Kosta eder da eta!


Zure besapean, hegaz



Franz Kafka museoa, Praga (Txekia)




Carrouselgo Garaipen Arkua, Paris (Frantzia)



Chicago, Illinois (Ameriketako Estatu Batuak)

Banaketa-lekuak

Guztira 437 banaketagune ditugu Uribe Kostan.
Ziur, zure etxearen ondoan bat duzula!



Telefono mugikorraz QR kode hori eskaneatu eta banaketagune bakoitzaren helbide zehatza agertuko zaizu, mapa interaktibo batean.



**Pirritxek eta Porrotxek
Tipi-tapa, Korrika!**
ikuskizuna aurkeztuko
dute, Plentzian. ▶13

**San Juan bezperako gaua edo udako
solstizioa tarteko, suak argituko du
lur-zerua, barikuan; uribekostarrek ere
udari ondoetorria egingo diote.** ▶12



hiruka

Uribe Kostako astekaria



100. zenbakia
2017ko
ekainaren 22tik
uztailaren 5era arte



© CHRISTIAN SCOTT

Jazzaldia, Getxon

Nazioarteko 20 kontzertu,
ekainaren 28tik uztailaren 2ra
bitartean, Algortako Bihotz Alai
plazan. ▶17



HERRIZ HERRI BERANGO

Sahararen alde

Bucraa herriko Eguneke Zentroa finan-
tizatzen du Berangoko Udalak, Sahara-
ko errefuxiatuen eremuan, Aljeriako
Tindoufen. Bertan egindako mediku-az-
terketetatik ondorioztatu dute onura-
dunak osasun-egoera «hobean» daude-
la, orokorrean. ▶15

KULTURA PLENTZIA

Lanbro Beltza topaketak

Genero beltzeko lanen
jardunaldiak egingo dituzte,
Plentziako kultur etxean,
ekainaren 23an eta 24an. ▶18

KIROLAK GETXO

La Kantera Pro txapelketa

Irailetik ekainera aldatuta,
Arrigunagan skate-izar asko
egongo dira; lehenengo aldiz,
euskal emakumezkoen lehia. ▶19

Kukularra eta Arriaga
auzo erandioztarrek
ondoetorria egingo diete
auzo-jaiei. Sendientzako
giroa nagusituko da. ▶11

**Leioako euskaltegian
izena** emateko laguntzak
eska daitezke, Udaren
Euskara Zerbitzuan,
uztailaren 6ra arte. ▶14

**Sopelako eta
eskualdeko**
langabeentzako enplegu-
anezkaren programa
berria, martxan, laster. ▶15

Hirukira Olgetan, umeei
begirako denbora-pasen
txokoa aukeran duzue
jolasteko, hilabete amaiera
denetan legez. ▶22-23



Tiocfaidh ár lá

OIER
ITURRALDE FERNANDEZ
«ATANO»
EH Bildu

Garaiz zabiltzate: zuen hitza bete egizu!

Getxok 2017. urtea udal aurrekonturik gabe igarotzeko aukera handiak ditu. Hori hala izateko arrazoi ugari egon daitezkeen arren, argi izan ez dela EHBilduren utzikariaren emaitza.

Alde batetik, barne prozesu parte-hartzailea burutu genuen, auzo ezberdinetako herritarren kezkak jasoz. Haiek bilduta, Getxoko Udal Gobernuarekin negoziaketa-prozesua abiatu genuen, lau ildo nagusi abiapuntu hartuta: Udal Euskaltegiko langileen soldaten berdintzea eta EPEen deialdia; Itzubaltzeta/Romoko eraikin historikoen mantenua; Emakumeen Etxea eta Berdintasun teknikari berria eta, azkenik, Etxebizitzaren arloan, alokairurako diru-laguntzak eta neurri zehatzak. Etxebizitzaren ildoan hitz egiteko prest agertu bazen ere, EAJ-PSE gobernu taldeak ez zuen gainontzeko gaiez eztabai-datu ere egin nahi izan.

Aurrekonturik ezean 2017an, 2016koak luzatzea dagokio. Eta iaz Getxoko Udalak onartutako 2016-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoa aurrekontu haien bidelagun denez, plan hori bera gauzatu egin behar du.

Baina, hara non, inkoherentzia erori zaigun Getxoko Udal Gobernuak: Planean, besteak beste, etxetik 250 kilometrorra senideren bat preso izan eta baldintza ekonomiko zehatz batzuk betetzen dituzten getxoztarrek diru laguntzak jaso ditzakete, haien senide presoak ikusi ahal izateko. Diru laguntza hauek desagerrarazi egin dituzte, ordea.

Lerro hauetatik, eta senide presoak dituzten getxoztarren hitzak gure eginez, Udal Gobernuari dei egiten diogu aipatu Plan Estrategikoan jasotakoa bete dezan. Dispersio politika-rekin amaitu bitartean, samina eta sarraski ekonomikoa baretzeko bidean aurrerapauso eraginkorra delako. Euskal presoak etxera! ◀

Getxo

Ahalduntzeko lekua

Emakumeen Etxea ahalduntzeko eta topaketako gunea izatea proposatu dute Getxoko herritarrek.

Emakumeen ahalduntzea eta topalekua izan daitekeen gunea sortzea da Getxon balizko Emakumeen Etxe batek eduki beharko lukeen helburu nagusia, Getxoko Udalak abiarazitako gogoeta-eta eztabaida-prozesu baten arabera. Helburua izan da Emakumeen Etxe baten inguruan dauden beharrianak, gurak eta iritziak identifikatzea. «Prozesu parte-hartzailea izan da, hainbat iritzi bildu dituen, aurrera eramateko emakumeen askotariko profilak kontuan hartu direlako. Gaiaren inguruko lehenengo kontaktua izan da, eta egiaztatu dugu interes handia eragin duela, baita iritzi anitz ere», adierazi



Balizko Emakumeen Etxe baten helburu nagusien inguruan gogoeta egin dute. © IORMAZABAL

du Keltse Eiguren Berdintasuneko zinegotziak.

Getxoko Udalak abiarazitako prozesuaren bidez batutako iritzien artean, balizko Emakumeen Etxearen balioek honako hauek izan beharko lukete: berdintasuna, kultura-arteko-

tasuna eta belaunaldi-artekotasuna. Ekintza-lerroak, berriz, hauek izatea proposatu dute: baterako hezkuntza, prestakuntza, dibulgazioa, laguntza, ekintza politikoa, aisialdia, asoziazionismoa eta kultura-artekotasuna. ◀

info+: www.hiruka.eus/getxo

Parkingaren kontra borrokan jarraitzera dei egin dute, berriz

Tosu landa husteko Eusko Jaurlaritzak emandako epea igaro da; hala ere, bertan kanpatuta dauden erresistentzia jarraitzen dute oraindino. Joan den barikuan, hilaren 16an, ehunka lagun batu ziren Algortako San Nikolas plazan, Ibarbengoako metro-geltokiaren ondoko lur-eremu horretan egin gura duten aparkalekuen kontrako iritzia adierazteko. Eusko Jaurlaritzaren delegazio bat eta Euskal Trenbide Sareko hainbat kide bertaratu ziren Tosuko landara joan den ekainaren 5ean. Notario batek, berriz, akta jaso zuen inguru horretan, eta bertan kanpatutako kideei gunea 8 eguneko epean uzteko eta husteko agindua



info+: www.hiruka.eus/getxo

ematen duen ebazpena eman zien. Epea igaro egin da, baina, oraindino erresistentziak bere horretan jarraituko duela jakinarazi dute bertan kanpatuta daudenek: «Adi egon datozen eguntan egongo diren mobilizazioei». ◀

Raquel González da Bizkaiko PPren lehendakari berria

Getxoko zinegotzi popularra den Raquel González aukeratu dute Bizkaiko PPko lehendakaria. Getxoztarrek afiliatuen 317 boto jaso ditu, guztira; Nerea Llanos bigarren hautagaiak jasotakoak baino 73 gehiago. González 2002an afiliatu zen alderdi popularrean, eta, bost urte geroago, Getxoko zinegotzi izatera igaro zen. Gonzálezen hautagaitzak Bizkaiko PPren «berritatzea, berrastea eta egokitzapena» helduko dela diote: «alderdiak behar duena da, eta afiliatuek eskatu dutena». Era berean, garai berriak heldu direla iragarri du Gonzálezek: «Jada ez dugu pertsoez berba egingo, helburuez baizik, politikaz egingo dugu berba». ◀

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Erandio

Uriolak ez gertatzeko
Ikoetako lanak hasi
dituzte daborduko

Lutxana auzoko Ikoeta parkea itxita dago, joan den ekainaren 12tik. Izan ere, Erandioko Udalak eta Ur Partzuergoak euri-urak husteko lanei ekin diete. Behar horien bidez, erakundeek parkea erabiltzea erraztu gura dute. Orain arte, parkeak ez zuen xurgatzen Enekuriko gainaren magaletik jaisten zen euri-ura eta, beraz, urez gainezka geratzen zen, auzokideei traba eginez. Erandioko Udalak jakinarazi duenez, obrak hiru hilabetea amaitzea espero dute; hala, parkea hiru hilabete horietan itxita egongo da. Aurrekontua 300.000 eurokoa da. ◀



© ERANDIOKO UDALA

Udalak 21 lanpostu
sortuko ditu herriko
langabetuentzat

Erandioko Udalak udalerriko 21 langabetu kontratatuko ditu sei hilabetez, datorren uztailetik urtea amaitu bitartean; ekimena aurtengo Enplegurako Udal Planaren barruan dago. Udalak eskaini dituen lanpostuak honako hauek dira: hamabi orotariko peoi, arreta soziosanitarioko laguntzaile bi, hiru garbitzaile, obra-begirale bi, astialdiko begirale bat eta administrari laguntzaile bat. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko beharrezkoa da Erandion erroldatuta egotea, gutxienez 2016ko abenduaren 2tik eta Lanbiden alta emanda egotea. ◀



Tor magoak zapatuan jardungo du Kukularran. © TOR MAGOA

Kukularra eta Arriaga
auzoetako festak datoz

Kukularrako eta Arriagako jaiek helduko diote Erandioko festen maratolari, datozen aste-akabuetan. Olgetan Solas jolasak izango dira auzo bietan, besteak beste.

Kukularra auzoak barikuan isiotuko du ospakizunen hasierako suziria, 19:00etan, eta ordubete gergoago, igel-toka txapelketa egingo dute auzokideentzat bakarrik, jai-batzordeak ohartarazi duenez. Egun berean, sardina-jana egingo dute, festei behar besteko indarraz ekin ahal izateko. Eta behin indarra hartuta, musika izango dute lagun.

Sendian gozatzeko ekimenak

Zapatuan eta domekan, familia osorako jarduerak izango dira: paella-lehiaketa, umeentzako Moto GP lasterketa, Aitor Bilbao *Tor* magoaren ikuskizuna, tortilla-lehiaketa, ludoteka, Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako Olgetan solas familientzako kirol-jola-

sak, eta askoz ekimen gehiago. Erandioko Udal Musika Bandak ere ez dio muzin egingo urteroko hitzorduari.

Erandioko Arriaga auzoko San Trifon jaiei dagokienez, ohi legez, txupinak eta pregoiak abiatuko dute festen lehen eguna, ekainaren 30ean.

Festetan, garrantzi handia izango dute erromeria-doinuek. Barikuan, Alaiki taldea oholtzara igoko da; zapatuan, berriz, Liskerre emango du parrandarako aitzakia. Domekan, oso bestelako giroa izango da Arriagan. Los Blue Yeyés bandak gogora ekarriko ditu 1960ko hamarkadan Espainian arrakasta izan zuten pop- eta rock-aklasikoak. Halere, jaiak ez dira amaituko, astelehenean San Trifon omendu arte. ◀

Kukularrako jaiak

Ekainak 23, barikua

19:00 Txupin-jaurtiketa.
20:00 Txapelketa auzotarrentzat: igel-toka.
21:00 Sardina-jana.
23:00 Musika DJ Mariogaz.

Ekainak 24, zapatua

11:00-14:00 Umeentzako jolas-parkea.
12:00 Paella-lehiaketa.
14:30 Paellak aurkeztea eta sari-ematea.
15:30-17:00 Umeentzako jolas-parkea.
17:00 Moto GP 8. lasterketa umeentzat.
17:00 Patinete-lasterketa.
18:00 Tor magoa.
19:15 The Funes Troup, kale- eta zirku-antzerkia.
23:00 Musika DJ Mariogaz.

Ekainak 25, domeka

11:00-15:00 Bola-salto.
11:30 Ludoteka.
12:00 Udal Banda.
13:00 Tortilla-lehiaketa.
13:30 Auzotar nagusientzako luncha.
14:30 Tortillak aurkeztea eta sariak ematea.
16:30 Olgetan Solas sendientzako jolasak.
18:00 Disko-festa: Mugitu Zaitetz.
20:30 Traka eta jaien amaiera.

Arriagako jaiak

Ekainak 30, barikua

17:30 Pregoia eta txupin-jaurtiketa.
18:00 Mus-txapelketa.
24:00 Erromeria, Alaiki taldeagaz.

Uztailak 1, zapatua

11:00 Putxerak.
12:00 Txapelketa: igel-toka.
12:30 Dantza-erakustaldia Goi-Aldegaz.
18:00 Idi-probak.
24:00 Erromeria, Lisker taldeagaz.
05:00 Galtzontzilo- eta kulero-lasterketa.

Uztailak 2, domeka

12:00 Olgetan Solas sendientzako jolasak.
12:30 Aldapa akuatikoa, ludoteka eta tailerrak.
12:00 Paella-jana.
18:30 Los Blue Yeyés.
20:00 Txorizo- eta odoloste-jana.

Uztailak 3, astelehena

17:00 Meza, aurreksua eta mokadua.

UDAKO IKASTAROAK

UZTAILA ETA IRAILA
JULIO Y SEPTIEMBRE

• MATRIKULA ZABALIKI!

Ekainaren 1etik 27ra
Del 1 al 27 de Junio

Azterketa ofizialak prestatzeko, 5 ordu egunero!

UDAN ERE EUSKARAZI!

6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS

• IKASTAROA NOIZ?

Uztailaren 3tik 28ra arte, 9:00etatik 12:00etara
Del 3 al 28 de Julio, de 9:00 a 12:00h.



BULEGO ORDUTEGIA:
9:30 - 17:00



Algortako etorbidea, 104
48991- Algorta (Getxo)

94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net
www.jagirre.net

San Juan suak argituko du Uribe Kosta

San Juan bezperako gaua edo udako solstizioa tarteko, ekainaren 23an, barikua, suak argituko du eskualdeko lur-zerua. Modu horretan, udaberria atzean utzi, eta udari ondoetorria egingo diote uribekostarrek, sutzarren inguruan. Barrikan, Leioan eta Algortako Zubilleta auzoan aitzakia ederra topatu dute hainbat egunez jaiez gozatzeko. Eskualdeko gainerako herrietan urteko gau magikoehagaz gozatzeko prest daude herritarrak; batean eta bestean egongo da zer edan, zer dastatu eta zer dantzatu. Besteak beste, Erandioko Altzaga auzoan eta Algortan, elkarlanari eutsi diote bertoko elkarte ugari, udako solstizioa (San Juan bezpera) ospatzeko. Beste hainbat herritan ere, bertoko elkarteek antolatu ohi dituzte ekitaldiak: Lemoizen, berriz, Bakiotik heldutako Bass Herri Sound Sistem taldeak joko du, skate-parkean, 22:00etan; ekitaldi horregaz, uztailaren 15ean egingo duten Txapel Reggae jaialdirako deia egin gura izan du Armintzako Jai Batzordeak. Eta, leku gehienetan, umeentzako jarduerak egongo dira, gehienbat. ◀

Getxo

San Nikolas plaza (Algorta)

San Juan Sua batzordeak antolatuta:
18:30 *Katapuntxispun!* umeentzako eta gurasoentzako dantza-festa.
19:30 Aurpegia margotzeko tailerra.
20:00 ALBEren bertsolariak.
20:15 Txokolate-jana eta munduko postreak.
21:00 Kantak, Gorrondatxe abesbatzagaz.
21:00 Konjurua eta Urdiaingo San Juan kantaia, Itxartu dantza-taldeagaz.
23:00 Dantza, suaren inguruan.

Malakate (Andra Mari)

Itxas Argia elkarteak antolatuta:
19:00 Txixi-burruntzia, txokolate-jana eta sardina-jana.

Zubilleta auzoa* (Algorta)

Zubilletako Jai Batzordeak antolatuta:
20:30 Txokolate-jana.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15 Sua.
23:00 Dantzaldia, Bidean taldeagaz.

* Ekainaren 25era arte egongo dira jaiak.

Berango

Lantzarte

19:00 Umeentzako dantzaldia, Begira taldeagaz, eta txokolate-jana.
20:00 Sua, hanburgesak eta sagardoa.
20:30 Xalbor Dja.

Leioa*

Udaletxe-ingurua

22:30 San Juan gaueko ikuskizuna, Hortzmuga taldeagaz, Boulevarden.
23:15 Sua, udaletxean.
00:15 Txokolate-jana, J.R. Aketxe plazan.
00:30 Magia eta umorea, Jon Zabalegaz eta Los Taps taldeagaz, Aldapa aretoan.
00:30 Extremoduro eta Platero y Tú taldeei omenaldi-kontzertua, Boulevarden.

Txosnagunea

Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak eta Leioako Akelarre elkarteak antolatuta:
22:30 Dantzaldia, Garliak 26 taldeagaz.
00:00 San Juan gaueko akelarrea; ondoren, dantzaldia, berriro.
* Ekainaren 25era arte egongo dira jaiak.

Sopela

Udaletxeko plaza

Akelarre-Jaia.
19:00 Mitologia-tailerrak.
20:00 *Andina Basandrina* umeentzako ikuskizuna.
21:00 Txokolate-jana.
22:00 Sua.
Horren ostean, *Drimuns* argidun eta koloredun musika-ikuskizun ibiltaria.

Erandio

Altzaga

Hainbat elkarte antolatuta:
18:00 Tailerrak, plazan.
19:30 Kalejira.
21:30 Sua, Tartanga institutuaren aurrean.

Lemoiz

Armintza

Armintzako Jai Batzordeak antolatuta:
22:00 Bakioko Bass Herri Sound System taldearen kontzertua, skate-parkean.

Plentzia

Legarrondo

19:00 Kontu Kontari: *San Juan Bagileko*.
19:30 Txokolate-jana.
20:00 Itsasadarretik suaren igoera.
22:00 Kontzertua.

Oharra: Sorginak behar dituzte. Prest daudenak antolatzailpeak harremanetan ipin daitezke, telefono zenbaki honetara deituz: 670 886 672

Gorliz

Andramariazpi

Gaminiz Bizirik elkarteak antolatuta, Gorlizko Udalaren laguntzaz:
16:00 Umeentzako puzgarriak.
18:30 Magia-ikuskizuna eta diskoteka, umeentzat eta gazteentzat.
20:00 Kalejira, trikitilariakaz eta buruhandiakaz.
21:00 Sua eta txalaparta.
22:00 Manu Urzay abeslariaren kontzertua.

Errementari bidea

Aratz Dantza Taldeak antolatuta, Gorlizko Udalaren laguntzaz:
21:00 Txokolatea eta sua.

Oharra: Antolatzailpeak ez dute ardurarik faltagatik sor daitezkeen istripuen erantzukizunik beregain hartuko.

Barrika*

Udaletxeko plaza

Barrikako Jai Batzordeak antolatuta:
14:30-16:00 Herri-bazkaria.
16:00 Dantzaldia, nagusien etxean.
18:00 Herri-kirolen erakustaldia.
20:00 Txan magoa.
20:30 Tai ji-erakustaldia.
22:00 Silexegaz, sua egiten ikasteko erakustaldia.
22:30 San Juan suaren ikuskizuna, Zirkozaurre taldeagaz.
23:00 Txokolate-jana.
23:30 Dantzaldia, Lehian taldeagaz.
* Ekainaren 25era arte izango dira San Juan jaietako ospakizunak.

Kaleko abestaldeak batuko dituzte

Itxas Argia elkarteak lehengo aldiz egingo du Getxo Kantari Eguna, zapa-tuan, ekainaren 24an. Besteak beste, 250 lagun elkartuko dira herri-bazka-rian, eguerdiko kantu-jira egin ostean. ◀

info+: getxokantariieguna.blogspot.com

Motorzaleen topaketa egingo dute, zapatuan

Motozaleen 20. topaketa egingo dute, Astrabuduan, zapatu honetan, ekainaren 24an; bertoko motorzaleek antolatu dute jardunaldia. Hala, 10:00etatik 22:00etara arte, ekitaldiak egongo dira, metro-geltokiaren ondoko parkingean. ◀

Bertso Saio Mundiala, uztailaren 5ean

Bertso-jaialdia egingo dute uztailaren 5ean, 21:00etan, Algortako Bihotz Alai plazan. Saioan parte hartuko dute An-doni Egañak, Maitalen Lujanbiok, Beñat Gaztelumendik, Onintza Enbeitak, Jone Uriak eta Xabier Payak. ◀



© KATXIPORRETA

Pirritx eta Porrotx, Plentzian

Plentziako eta Gorlizko euskara-agenda bateratuaren barruan, *Tipi-tapa*, *Korrikal* ikuskizuna aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzeko, bi urtean behin Euskal Herria zeharkatzen duen lasterketari gorazarre egingo diote. ◀

Noiz: Uztailak 4, martitzena.
Ordua: 17:00
Non: Ontziola plaza.
Sarrera: Doan.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

ANTZERKIA

EKAINAK 24, ZAPATUA

Pisito de solteras

19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkartegaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

EKAINAK 25, DOMEKA

Sardina freskue

20:00 | Zubilletako zelaia (Algorta) | Getxo
Eidabe taldeagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

EKAINAK 27, MARTITZENA

Entre brumas

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Kalea antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

BERBALDIAK

EKAINAK 22, EGUENA

Kurdistango egoera politikoa eta soziala

19:00 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela
Askapena elkartegaz. Sarrera, doan.

DANTZA

EKAINAK 24, ZAPATUA

Folklore Eguna

20:00 | Ibarreta plaza | Gortiz
Aratz Dantza Taldeagaz eta Musikabi koruagaz.

ERAKUSKETAK

EKAINAREN 26TIK UZTAILAREN 2RA ARTE

Proiektors

Gofi Portal kultur etxea | Plentzia

Mikrofilm Short Festival jaialdiaren barruan. 30eko eta 70eko zinema-proiektoreak erakutsiko dituzte. Sarrera, doan.

IKASTAROAK

EKAINAK 27, MARTITZENA

Fotógrafos influyentes

19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeagaz. Sarrera, doan.

JAIAK

EKAINAREN 22TIK 25ERA ARTE

San Juan jaiak, Leioan

Erdigunea | Leioa
Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

San Juan jaiak, Barrikan

Exelde auzoa | Barrika

Besteak beste, Dantzatlon jaialdia, herri-bazkaria, Nekazaritza eta Artisautza Azoka, eta sukalki-txapelketa egingo dituzte. Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

EKAINAREN 23TIK 25ERA ARTE

Kukularrako jaiak

Kukularra auzoa | Erandio

Familia-giroan gozatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago: www.erandio.eus

San Juan jaiak, Zubilletan

Zubilleta auzoa (Algorta) | Getxo

Besteak beste, dantzaldia Bidean taldeagaz, Urban boxing izeneko tailerra eta Oliver magoaren ikuskizuna egongo dira. Informazio gehiago: www.getxo.eus

EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 1ERA ARTE

San Pedro jaiak

Udaletxearen ingurua | Sopela

Kirrol-talde sopoloztarren emakumeak batuko dituzte, pregoirako. Informazio gehiago: www.facebook.com/sopelakojaibatxordea

EKAINAREN 30ETIK UZTAILAREN 3RA ARTE

San Trifón jaiak

Arriaga auzoa | Erandio

Familia-giroan gozatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago: www.erandio.eus

MUSIKA

EKAINAK 23, BARIKUA

Mikel Inunziaga

19:30 | Danontzat gaztetxea | Plentzia

Da nola diskoa aurkeztuko du. Sarrera, doan.

Rudesindus

22:00 | Josu Murueta plaza | Erandio

Rosendo abeslariari eta Leño taldeari omenaldia egiten diete. Sarrera, doan.

EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 2RA ARTE

Getxo Jazz

Algortako erdigunea | Getxo

Informazio gehiago: www.getxo.eus

ZINEMA

UZTAILAREN 3AN ETA 4AN

Gaurik Laburrena

21:00 | Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo

Film laburren maratokia. Astelehenean, gaztelaniaz; martitzenean, euskaraz. Doan.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Leioa

Euskara ikasteko laguntzak

Uztailaren 6ra arte eskatu ahal izango dira Leioako euskaltegietan izena emateko diru-laguntzak; Euskara Zerbitzuaren bidez egingo dira eskaerak.



Uztailaren eta irailean, ikastaro trinkoak antolatuko ditu Mastitxu udal-euskaltegiak.

Leioako euskaltegietan euskara ikasteko diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udalak; uztailaren 6ra arte aurkeztu ahal izango da eskaera. Horretarako, eskatzaileek Euskara Zerbitzura jo beharko dute (Jose Ramon Aketxe plaza, 11), 09.00etatik 13.30era, eta euskarazerbitzua@leioa.net helbide elektronikora ere idatz dezakete.

Diru-laguntzei dagokienez, euskaltegietan izena emango duen ia edozeinek eskatu ahal izango du matrikularen %25 bueltatzea. Hori lortzeko, nahikoa izango da Leioan sei hilabetez errolatuta egotea, eta ikastaroa amaitu arte eroldan mantentzea. Bestalde, euskaltegietako ikasleek matrikularen %15 aurreratzea eskatu ahal izango dute, izena emateagaz batera. Modu berean, orain arte lege, diru-laguntza jaso ahal izango dute helbide soziala udalerrian daukaten elkarreetako kideek, 12 urtetik beherako

umeen gurasoek, eta 1992tik 1999ra bitartean jaiotako gazteek. Horiei denei matrikularen % 50 ordainduko diete. Ostera, familia-unitateko gutxieneko diru-sarrerara heltzen ez direnei matrikularen % 80 emango diete. Hala ere, euskara ikasteko diru-laguntzak jaso gura dituztenek betebeharrak batzuk izango dituzte: Mastitxu udal-euskaltegiko edo Lamia AEK euskaltegiko ikasle izatea, eta gutxieneko bertaratzea % 85ekoa izatea.

Ikastaroak, Mastitxun

Bitartean, HABEren mailak egiaztatzeko hainbat ikastaro trinko emango ditu Leioako Udal Euskaltegiak, uztailaren eta irailean. Uztailaren ikastaroetako matrikulazio-epea daborduko amaitu egin da; iraileko ikastaroetan izena emateko epea uztailaren 10etik 13ra bitartekoa izango da, udal-euskaltegira hurreratuta. ◀

diru-laguntzen informazioa: 946 072 576

Urte-akabuan has litezke Txorierriko igogailua egiten

Daborduko Leioako Udala lanean dabil, Txorierri eta Lamiako auzoak lotuko dituen igogailuaren lizitazioa lehiaketara ateratzeko; aurreikuspenen arabera, obrak urte-akabuan hasiko dira. Mari Carmen Urbieta alkateak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzak eta Langileria kaleko 80. zenbakian bizi den familiak akordioa egin zuten, joan den astean. «Beraz, hilabeteko epea daukate etxe hori uzteko eta babes ofizialeko etxebizitza batera joateko», adierazi du udal-agintariak. Behin hitzarmena izenpetuta, etxe hori bota ahal izateko dokumentazioa prestatzen dabil Jaurlaritza; eta urbanizazio-lanak «uztaila-



Txorierri eta Lamiako lotuko ditu igogailuak.

ren amaieran» berrabiatu daitezkeela uste dute. Udala igogailua eraikitzen hasi baino lehenago, urbanizazio-lanak amaituta izan behar ditu Gasteizko Gobernuak, agintari leioaztarrek akordura ekarri dutenez. ◀

Leioandiko obrek trafikoa aldatzeko eragingo dituzte

Leioandiko 38. sektorean hasi dituzten urbanizazio-lanak eragina izango dute hainbat kaletan, urtea amaitu arte; orduan aurreikusten da lanak amaituta egongo direla, udal-iturriek zehaztu dutenez. Besteak beste, honako kale hauetan egongo dira aldaketak: Elexalde Etorbidean, udaletxeko biribilgunearen inguruan eta 2. zenbakitik 30.eraingo, atzealdean; Artatzaganekeko igoeran, St George's English School ikastetxetik Aldekoenara arte; eta Leioagotia baserriaren inguruan. Udal-arduradunek barkamena eskatu diete herritarrei, aldaketek sor ditzaketen eragozpenengatik. ◀

info+: 944 008 000

Sareko enpresek 'Leioa' izena onartzea gura du Esnatuk

Esnatu Leioa alderdiko kideek sinadura-bilketa birtuala egin zuten, 2015eko maiatzean, Facebook, Wikipedia eta Google-ri zuzenduta; sareko enpresa horiek 'Leioa' izena bere egin zezatela eskatzea zen helburua. Berbarako, euskarazko Wikipedian ez dago arazorik; baina, espainolezkoan topa daitekeen izen bakarra 'Lejona' da. Bada, sinadura-bilketa egin zutenetik urte bi igaro direnean, mozioa aurkezte erabaki du Esnatuk. Orain, «alkateak erabaki beharko du zer batzordetan eztabaidatuko den, eta, horren ostean, udal-batzarrera doan», Ruben Belandia alderdi horren bozeramaileak azaldu duenez. ◀

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua
Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

aldai
Tapizteria
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Sopela

Langabeak laguntzeko

Enplegu-politiken aldeko beste apustu bat egingo du Sopelako Udalak, irailean; Enplegu Anezka programa.

Langabeak eta ekintzaileak lan-munduan sartzeko zein autoenplegurako aukerak sortzeko helburuagaz, Aurrera jo eta Ekin prestakuntza-programa martxan ipini zuen Udalak, joan den maiatzean. Ekainaren 14an, berriz, taldeko heziketa-fasea amaitu zen; sei heziketa-tailer egin zituzten, eta udalerriko 16 gizon-emakumek parte hartu zuten horietan. Modu berean, banakako tutoretza pertsonalizatuak egin dituzte ikasleak. Hala, fase hori amaitu ostean, taldeko orientazioaren fasea hasiko da, Komunikazio eta Enplegagarritasun Mapen harira. Hori urtearen amaierara bitartean egingo dute, eta



info+: www.dema.eus / www.sopelaudala.org

banakako orientazioagaz, laguntza pertsonalagaz eta segimendu faseagaz amaituko da.

Enplegu-anezkak, prest

Sopelako Udalak lankidetzan jardungo du Aldundiak bultzatutako En-

plegu Anezkak eta Ekintzailetza Solidarioa programan. Irailaren 1ean abiaraziko dute, sei hilabetekoa izango da. Parte-hartu gura dutenek eskualdean erroldatuta egon beharko dute, eta eskaerak abuztuaren 31ra arte egin ahal izango dituzte. ◀

Emakume kirolariei eta kuadrillei gorazarre, jaietan

Erainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko dituzte Sopelan San Pedro jaiak. Larrabasterrako Karmenak, berriz, uztailaren 13tik 16ra izango dira. Joan den domekan aurkeztu zituen Jai Batzordeak udalerriko jai horien egitarauak, ekainaren 18an. Azaldu zutenenez, aurten emakume kirolariei eta kuadrillei gorazarre egin gura diete Sopelako eta Larrabasterrako festetan, hurrenez hurren. Lehenengoan, emakume kirolariek emango diote hasiera jaiari, pregoia irakurriko dute eta; «hainbat kirol-talde eta adin guztietako emakume kirolariak biltzen saiatu dira». Larrabasterran, osteran, kuadrillena izango da berbaldea, eta pregoia irakurri; adierazi dutenez, «jaiak biziberritzeko, kuadrillen barre-algarak ezinbestekoak dira».

Udalerriko jaiari amaiera emateko Santa Marina Eguna ospatuko dute uztailaren 20an, eguenean, Santa Marinako ermitan bertan. ◀

Berango

Adineko sahararren egoitzaren egoera ontzat jo du Udalak

Aljeriako Tindouf-eko Saharako errefuxiatuen eremuan dagoen Bucraa herriko Eguneko Zentroa finantzatzen du Berangoko Udalak. 2009 eta 2010 urteen artean eraiki zuten, eta etengabe funtzionatzen duen proiektua da. Eremu horretan egindako mediku-azterketetatik ondorioztatu dute zerbitzu horren onuradunak, orokorrean, osasun-egoera «hobeetan» daudela. Adineko eta ezintasun psikologikoa duten Bucraaneko 40 gizon-emakumek baino gehiagok dutsak, bainu turkiarra, erizaintza-zerbitzua eta aire girotua duten hiru gela dituzte beraien



esku. «Pertsona onuradun gehienak Mendebaldeko Saharan jaio ziren eta gizon gehienek Marokoren kontrako gatazkan gerra-zauriak sufritu zituzten», zehaztu du Landak. ◀

Liburutruk kaleko liburutegia inauguratu dute

Martxan dago Berangoko Liburutruk egitasmoa. Joan den zapatuan inauguratu zuten ekimena, dozenaka lagun artean. Hilaren 18an, goizeko 11:00etan ekin zioten egun bereziari, batukada baten doinuei jarraituz. Ostean, Berango Merana eskolako umeek Simon Otxandategi kalean dagoen kioskoa dekoratu zuten; horretarako, tailer bat antolatu zuten egitasmoaren arduradunek. Azkenik, egunari amaiera hobezina emateko asmoz, Ana Capilla dantzariak dantza-ikuskizuna eskaini zuen, bertarutako denen gozamenerako. ◀

EAJk «zabor-lana» sustatzen duela salatu dute Berangon

Berangoko Udalak eta EAJk gazteen miseriaren aurrean duen «mespretxu eta gutxiespena» salatu dute LAB sindikatuak eta Ernai gazte antolakundeak. Burger King hanburgesa katea ezarriko da laster udalerrian, eta aipatutako azken eragile biek deitoratu dutenez, enpresa hori gazteen «prekariatatearen eta miseriaren truke aberasten da». Hori dela eta, azken egunotan Berangoko Udalak enpresa horretan behar egiteko lan-eskaintzen berri emateko bandoa etxer etxe banatu izana salatu dute sindikatuak eta gazte antolakundeak. ◀

ez duzu ahaztuko
no lo olvidarás

UDA KO ESKAINTZA 2017 CURSOS DE VERANO

aek
euskara praktikoa

URIBE KOSTAKO AEK
UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kotxa, t8- 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 · www.bordadosaingara.com

txakoli motaTx
txakolina

Leioa-Unbe erreplidea 34
(Akarlana parkea) Goleiri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com



Ttipi-ttapa

IRATXE
MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Sarea 100tzen jarraitu behar dugu

Zorionak, HIRUKA! Zorionak orain dela 100 zenbaki abian jarri zenuten egitasmoa honaino ekarzteagatik. Zorionak euskaldunoi astero ematen diguzuen euskarri zoragarriagatik. Zorionak Uribe Kostako euskaldunon sarea sortzen ahalegintzeagatik. Ez duzue lan makala hartu! Lan horretan guztiok saiakera handiagoa egin beharko genuke. Horrela izango balitz, gure eskualdean euskarak ikaragarritzko indarra izango luke. Euskaldunak gare-lako eta indartsuak gare-lako sinistu eta horren alde egin behar dugu. Ematen zaizkigun aukerak baliatu behar ditugu, eta guk ere besteei aukerak eman behar dizkiegu. Uda eta jaiak datoz, euskara plazaratzeko momenturik aproposena: ikasturtean zehar ikasten ibili direnek ikasitakoa praktikatu eta hobetu ahal izango dute; euskaraz bizi garenok, ordea, euskaldunak ez direnak gure mundura erakartzen saiatu ahal gara.

Lorpen handiak egin dituzue 100 zenbaki hauetan: agenda bateratua guztion eskura jartzea, herrien informazioa elkarri ailegatzea, askoren erakusleioa izatea... komunikatzea. Baina lortu duzuen gauzarik handiena ostegunetan HIRUKA jasotzen dugunean zabaltzeko zirrara da. Eskuan hartu eta ezagunen argazkiak bilatzen ditugu, zuta-beak irakurtzen ditugu, ondoko herrian abiatuko duten proiektuaren berri izaten dugu...

Mila esker! Eskerrak emateko beharrean ere bagaude, zoro batzuen burutazioak aineratzeko bidea zabaltzeko diguzuelako. Ez nuen uste nik proiektu hau hasi zenean betetzeko gai izango nintzenik; baina, egia esan, nire txanda helduan idazteak «desentxufatzeko» unea eskaintzen dit.

Beraz, zorionak, mila esker eta segi horrela, berrehunera ailegatu behar dugu eta! ◀

Plentzia

Etxeko grabaketa zaharren bila ari dira

Mikrofilm Short Festival jaialdiaren barruan, Proiektors erakusketa egingo dute, Goñi Portalen.

Ekainaren 30etik uztailaren 1era egingo dute Plentzian Mikrofilm Short Festival jaialdia. Nazioarteko zinema beltza eta film laburrak oinarritzat dituen ekitaldiak 6 urte beteko ditu aurten. Horren barruan, gainera, Proiektors erakusketa egingo dute; 30eko eta 70eko hamarkaden arteko 30 zinema-proiektore inguru erakutsiko dituzte, formatu askotarikoak: 8 mm, Super 8, 16 mm edo 35 mm; eta hainbat markatakoak: Bell&Howell, Kodak, Eiki, Micro Ci Son, Bauer, Elmo, Marin, Bollex Paillard eta Eumig. Erakusketa horren helburua da herritarren oroitzen kuxetan egon litezkeen filmak berreskuratzea. Hori dela eta, beren film-artxiboak eroatera gonbidatu dituzte antolatzaileek herritarrek.

Erakusketaren arduradunek laguntza emango dute pelikula kontserbatzeko eta zabaltzeko. Erakusketara eroandako pelikula-biribilkia

jaialdian proiektatu ahal izango dira. Jesús María Agirreren (1947) konponketa-asamena eta Aitor Albediren (1967) historiarekiko grina dira Proiektors erakusketaren abiapuntuak. Erakusketak proposatzen du iraganera bidaiatzea, zenbait proiektore baliatuz (8 mm, Super 8, 16 mm eta 35 mm) eta era guztietarako film-artxiboak berreskuratuz nahiz zabaltuz (komertzialak ez direnak), «etxeko filmak oroitzen soila direla iruditu daiteke, baina horrezaz gain, dokumentu historikoak ere badira», azaldu dute. Proiektore erakusketa ikusgai egongo da Goñi Portal kultur etxean, ekainaren 26tik uztailaren 2ra arte.

Mikrofilm Short Festival

Plentziako VI. Nazioarteko film laburren jaialdia izango da ekainaren 30etik uztailaren 1era bitartean. Hala, munduko hainbat lekutatik heldutako ikus-entzunezko askotariko lan laburrak ikusi ahal izango dira egun horietan, Plentziako Eleiz plazan. Horrez gainera, berbaldiak, kontzertuak, argi-ikusketak eta beste hainbat jarduerak egongo dira. ◀

info+: www.mikrofilmfestival.com

Gorliz

Genero-ikuspegia txertatu dute hirigintza-plangintzan

Hirigintza-plangintzaren berrikuspenean, genero-ikuspegia sartzeagatik, 30.000 eta 21.932 euro arteko diru-laguntza jasoko du Gorlizko Udalak aurten. Bizkaiko Foru Aldundiak emango ditu laguntza horiek, hala xedatzen baita deialdia arau-

tzen duen foru-dekretuan. Laguntzok 7.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalerriek eska zezaketen; hala ere, Gorliz ez ezik, honako hauek ere jasoko dute: Foruak, Ibarrangeluk, Gatikak, Mañariak, Ugao-Miraballesek, Laukizek, Muxikak eta Berriatuak. ◀

Urduliz

Saneamendu-sarea hobetuko dute Elortza Eskolaren inguruan

Elortza Eskolako atzealdeko saneamendu-sarea eta orubea egokitzeko proiektua onartu du Udalak. Proiektuaren oinarritzko helburua da inguru horretako saneamendu-sarean jardutea, gaur egun, herriko puntu beltz bat delako, Udalak jakinarazi duenez. Asmoa da euri-uren eta ur beltzen sareetan jarduteaz gainera, arazoak ematen dituen zatia kentzea. Obra hori aprobe-txatuz, lur-eremu horretan ere egingo dute lan, hura egokitu eta erregularizatu ahal izateko, ondoren aparkaleku publiko gisa erabiltzeko. Aurrekontua 96.289,21 eurokoa da. ◀

Aparkalekua, Urduliz Urbanismo Sozietatearen esku

Alfredo Espinosa ospitalearen onadoko lur-eremuan aparkaleku estalia, eraikin komertzialak eta plazaren urbanizazioa egiteko esleipena Urduliz Urbanismo Sozietatea udal-enpresari ematea onartu du Urdulizko Udalbatzak. Hala, sozietate horrek lehiaketara ateratu beharko ditu obra horiek, eskaintzarik onena aurkeztzen duenari obren esleipena eman ahal izateko. ◀

Urdulizko Udalaren webguneak .eus domeinua hartu du

Urdulizko Udalak itxura berri du Interneten; izan ere, bere webgunearen domeinua aldatu berri du, Urduliz.net izatetik Urduliz.eus izatera aldatuz. Hala, Interneten euskara eta euskal kultura adierazten dituen .EUS domeinua bere egin du Udalak, eskualdeko beste hainbat udalek azken urteotan egindako hautuari jarraituz. ◀

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

BOSCH
Service
Car Service

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

ander deuna batxilergoa

hau herikuntzatik

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus



Kontzertu nagusien artean, azken-aurreko egunean Dianne Reeves abeslari ospetsua igoko da agertokira. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Getxo Jazz badator!

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 41. edizioan hogei kontzertu egongo dira, ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte.

Aurten ere izen handiko musikariek parte hartuko dute Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 41. edizioan, hila- ren 28tik uztailaren 2ra arte, Algortan. Saio nagusietan (Bihotz Alai plazan,

22:15ean), Chucho Valdés, Dianne Reeves, Christian Scott, Bill Evans, Dean Brown eta Andrej Olejniczak izango dira; horiei batuko zaizkie talde-lehiaketaren kontzertuak (Bihotz Alai plazan, 21:00etan); beste behin ere, Eu-

ropako jazz-musikari gazteen lanaz gozatzeko aukera egongo da. Bestalde, Hirugarren Milurtekoa atalean, eskaintza ugaria izango da: Ana Bejerano Concept, Alberto Arteta Group, Daahoud Salim Quintet, Giulia Valle Trío eta The Machetazo taldeak igoko dira agertokira, Telletxe plazan; emanaldiak 19:00etan hasiko dira.

Familiako kide guztientzako saioei

dagokienez, Andrés Isasi Musika Eskola Gazte Sextet-ek uztailaren 1ean emango duen kontzertua nabarmendu du Getxoko Kultur Etxeak. Taldea Udalaren musika-eskolan ikasten duten sei ikaslek osatzen dute, eta Getxon egingo du estreinako emanaldia, jazzaldiaren barruan. Azkenik, Cuarteto y Taca taldearen inprobisazio-saioak egongo dira, ekainaren 29tik uztailaren 1era arte, Algortako The Piper's taberna irlandarrean, gauerdian.

Sarrerak

Algortako Bihotz Alai plazan egongo diren kontzertuak izango dira ordaindu beharreko saio bakarrak. Hala, txartelak eros daitezke ohiko salmentaguneetan: Kutxabankeko orotariko kutxazainetan, Kutxabank.es webgunean, Algortako kultur etxean eta 944 914 080 telefono zenbakiaren bidez (Kultur Etxea). Bestalde, gazte-txartela daukatenek Getxoko Jazzaldiko gonbidapenen zozketan parte hartu ahal izango dute. Izan ere, Andrzej Olejniczak Quartet eta Christian Scott Quintet taldeen kontzertuetarako seinarrera bikoitz zozkatuko dituzte; Bill Evans & Dean Brown Band taldearen emanaldietarako, hiru sarrera bikoitz; eta Dianne Reeves eta Chucho Valdés musikarien saioetarako, sarre- ra bikoitz bana. ◀

info+: www.getxo.eus/eu/getxo-jazz

Kale antzerkia bultzatuz jardunaldiak, bueltan

San Juan jaiak direla aprobe- txatuz, Algortako Zubilleta auzoan jarraituko dute *Kale antzerkia bultzatuz* jardunaldiak, domeka honetan, ekainaren 25ean. Hala, 20:00etatik aurrera, Eidabe taldearen *Sardina freskue* lana ikusteko aukera egongo da, bertoko zelaian; sarre- ra, doan. Antolatzaileek azaldu dute- nez, «parranda, jolasa eta dantza» da *Sardina freskue*. Ikuskizunaren gidariak «sardinazaleak» dira eta protagon- istak herri bakoitzeko umeak eta gazteak. Gure betiko euskal itsas kan- tuek eta mundu zabaleko askotariko doinuek lagunduta, denak elkarregaz joango dira «hamaika koloretako sar- dinaren bila». «Amamak esan legez, sardina honek alaitasuna eta anizta- suna ekartzen ditu. Horregatik, ezin- bestekoak dira elkarbizitza eta jai- gi- roa. Aspalditik gure herrira etorri ez denez, bere bila abiatuko gara arran- tzan kostaldean eta lehorrean, betie-

Egitaraua

Ekainak 25, domeka

20:00 *Sardina Freskue* antzezlan, Eidabe taldeagaz, Algortako Zubilleta auzoko zelaian. Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Uztailak 8, zapatua

20:00 *Tina* antzezlan, Zirkun Zirko taldeagaz, Neguriko Gernika parkean. Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

re jolasean eta dantzan, eskolan zein enparantzan», azaldu dutenez. *Kale antzerkia bultzatuz* jardunaldien aur- tengo azkenengo saioa Neguriko Kar- mengo jaietan egingo dute, uztailaren 8an, zapatuan; Zirkun Zirko taldeak *Tina* antzezlan aurkeztuko du, eus- karaz, bertoko Gernika parkean. Saioa 20:00etan izango da; sarrera, doan. Ilusioz, emozioz eta dibertsioz beteta- ko txotxongilo-ikuskizuna eskainiko du Zirkun Zirko taldeak, Negurin. ◀

Mikel Inuntziaga bakarlariak kontzertua emango du, Plentziako Danontzat gaztetxean

Mikel Inuntziaga *Inun* abeslari zor- notzarrak *Da nola* izeneko bi- garren diskoa aurkeztuko du, Plen- tziako Danontzat gaztetxean, bariku honetan, ekainaren 23an. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. *Inunek* gaztaro osoa daroa musika- ri lotuta; bakarka zein hainbat musi- karigaz askotariko proiektuetan ibili zen, 2014ko maiatzean bere lehenen- go diskoa kaleratu arte: *Berreginez*. Grabaketa zuzenean egin zuen, gi- tarra, ahotsa eta erritmo elektroniko eta akustikoak *loop* pedalakaz konbi- natuz. Horrez gainera, zenbait litera- tura-ekitalditan ere parte hartu zuen, 2015ean eta 2016an: besteak beste, Bil- boko Gutun Zuria jaialdian, Bernardo Atxaga idazleagaz batera. Azkenik, 2016ko urrian *Da nola* izeneko diskoa aurkeztu zuen. Hainbat euskal idazle- ren poema musikatuak jasotzen ditu lan horretan zornotzarrak. ◀

info+: inun.eus

Hitza emanda



Ehun

Behin bazen eskualde bat goibel eta triste; bizilagunak zeuden albistegi eske... Horra lehen HIRUKAren jaiotza albiste; gaur EHUN daude, ta betoz beste horrenbeste!



GALDER BILBAO MARTINEZ
«TXAPI»
Bertsolari udondotarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.





Jon Arretxe Perez (Basauri, 1963) idazleak parte hartuko du Lanbro Beltza topaketetako euskarazko lehenengo mahai-inguruan. SAREAN.INFO

Egitaraua

Ekainak 23, barikua

18:00 Jardunaldien hasiera: *Lanbro Beltzaren 25. urteurrena* gogoratzen.

18:30 Mahai-ingurua: *Nobela beltzaren ahots berriak*.

19:30 Mahai-ingurua, euskaraz: *Euskarazko nobela beltza*.

Ekainak 24, zapatua

18:00 Mariano Sánchez Soler aurtengo topaketetako ohorezko gonbidatuari «galdeketa zorrotza».

19:00 Mahai-ingurua: *Kronika beltzetik nobela beltzera*.

20:00 Ipuin laburren lehiaketaren sariak.

info+: brumanegra.wordpress.com



Begire nago begire

JOSU ESNAOLA ARANGUREN
Helduen euskalduntzean irakasle

Autokritika, eskatzeko pronto egiteko tonto

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 1982ko azaroaren 10ean. Bertan, besteak beste, honako funtsezko hizkuntza-eskubide hau aitortzen zaigu, hitzez hitz, Euskal Herriko (sic) herritarroi: Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatearekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

Maiatzaren 10ean, hau da, aipatutako Legea onartu eta ia 35 urtera, Lekeitioko institutu-ko neska-mutikoak bisitan joan ziren Lege hori onartu zuen erakundera, eta hura bai ezustekoa! Eurak euskaraz hasi orduko sarrerako ertzainetako batek «En castellano por favor». Ez dut pentsatu nahi nola geratuko ziren koitadu-koitadak. Guztion eskubideak bermatu beharko lituzkeen etxean, egun daukagun erakunde gorenean, gutxietsiak eta euren funtsezko eskubideak hankapean hartuak.

Horraino dena nahiko normala, zoritxarrez horrelakoak gehiegitan bizi behar izan ditugu-eta. Baina kontua ez da hor amaitzen. Harrigarria izan da afera horren gainean galdetuta Segurtasun sailburuak emandako erantzuna. Izan ere, errua edo erruaren zati bat onartu beharrean, bada-kizue nori leporatu dion ertzain gehiagok euskara ez jakitea? Bai, asmatu duzue, betikoei, oraingo honetan ETari. Erakunde armatu horren erruz duela gutxira arte ertzainek ez baitzuten euskalte-gira joateko aukerarik sailburua-ren esanetan.

Harrigarria zein erraz darabilen gezurra sailburuak, gure euskaltegiak behintzat urteak eta urteak baitaramatza ertzainak hartzen. Harrigarria zein lotsa gutxirekin zuritu nahi duen bere burua. Harrigarria, era berean, horren aurrean euskalgintzak agertu duen isiltasuna. ◀

Sormen iluna, berbabide

Lanbro Beltza topaketak ekainaren 23an eta 24an egingo dituzte, Plentziako Goñi Portal kultur etxean; mahai-inguruak, berbaldiak eta eztabaidak egongo dira.

Genero beltzeko nobelen eta filmen inguruko topaketak 1992an egin ziren Plentzian lehenengo aldiz; 1993an ere antolatu zituzten. Hala ere, bertan behera geratu ziren, orain dela urte bi Udalak horiek berreskuratzea erabaki zuen arte, Calibre 38 aldizkari digitalaren laguntzaz. Aurton, ekainaren 23an

eta 24an, idazleen arteko mahai-inguruak, berbaldiak eta eztabaidak egongo dira, Goñi Portal kultur etxean. Gainera, Aritza Bergara antolatzaileak iragarri duenez, lehenengo biderrez euskaraz egingo dute mahai-inguru bat; saio horretan, Jon Arretxe idazle basauriarrak parte hartuko du. Hitzordua barikuan ipini dute, 19:30ean; sa-

rrera, doan. Arretxegaz eta Bergaragaz batera, Lanbro Beltza ipuin laburren lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi zuen Begoña Navaridasek parte hartuko du, eta *Herioaren mandataria* eleberriaren egilea den Joseba Lozano ere bai.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, zapatuan, Mariano Sánchez Solerri «galdeketa zorrotza» egingo diote; Alacanteko idazlea da Lanbro Beltza V. Topaketen ohorezko gonbidatua. David Crestelo alkatearen eskutik jasoko du oroigarria. ◀

Euskarazko 11 film labur eskainiko ditu Algortako Gaurik Laburrenak, uztailaren 4an

Algortan, urtero legez, Gaurik Laburrena ekitaldia antolatuko du Getxoko Kultur Etxeak. Film laburren emanaldiagaz gozatzeko aukera edukiko dute zinemasaleek, uztailaren 3an eta 4an. Egun bietako saioak 21:00etan hasiko dira Bihotz Alai plazan, eta sarrera doakoa izango da. Getxoko Kultur Etxeak ohartarazi duenez, filmak ez dira egokiak 16 urtetik beherako neska-mutilentzat. Hala, lehenengo egunean, gaztelaniazko 18 film proiektatuko dituzte; bigarren egunean, euskarazko beste 11 pelikula. Astelehenean, besteak beste, *Malatza* (Juanan Bilbao, 5 minutu), *Renovable* (Jose Mari Goenaga eta Jon Garalo, 13 minutu) eta *Letargo amor* (Eva Vazquez de Reoyo, 3 minutu) ikusi ahal izango dira. Euskarazko film laburrei dagokienez, *Hasiera* (Felipe Ugarte, 13 minutu), *Garai berriak* (Koldo Almandoz, 2 minutu) eta *Ihesa* (Alejandro Díaz Castaño, 15:19 minutu) daude emango dituztenen artean. ◀



Txapelketak irudi ikusgarriak utzi zituen iaz.

La Kantera Pro Pool Contest nazioarteko skate-txapelketa egingo dute barikutik domekara. Irailetik ekainera aldatu izanak erraztu du nazioarteko izarrak etortzea.

Dena prest dago Arrigunaga eta Areetako skate-parkeetan munduko patinatzaile onenek jarduteko. Izan ere, Getxoko Skate Astearen ostean egingo da La Kantera Pro txapelketa; joan den astean, Basque Pool Series euskal zirkuituko probak egin zituen La Kantera Skate Eskolak. Egitarauan denetarik izango da: maila goreneko lehiaketak (50.000 euro banatuko dira sari-

tan), erakustaldiak, eskolak, musika eta hainbat kultur jarduera, skatearen kulturaren oinarrituta. Ekitaldi denak li-break eta doakoak izango dira.

Bestalde, euskal emakumezkoen txapelketa egingo dute lehenengo aldiz, antolatzaileek azpimarratu dutenez; bertan parte hartuko dute Catherine Marquise eta Chloe Bernard goi mailako patinatzaileek. La Kantera Pro egunez aldatu izanak munduko

maila goreneko rider-talde batek izena ematea erraztu du; aurreko edizioetan, irailean egin zen eta, aurtten, ekainaren 23 eta 24an (eguraldia okertuz gero, domekan ere egin liteke), eta, horren ondorioz, skater horietako askok Getxoko proban izena emateko aukera izan dute, aste hauetan europar zirkuituan lehiatzen baitabilta.

Horrenbestez, honako skate-izar hauek izango dira Arrigunagan: Pedro

Barros brasildarra (modalitateko munduko onena eta Getxoko lehen txapelketako irabazlea), Alex Sorgente (iazko irabazlea), CJ Collins, Cory Juneau, Ivan Federico, Danny León eta Kale Berglind (2015eko txapelduna).

Gainera, masterren probak kirol honetako mitoak izango dira, eta lehenengo aldiz emakumezkoen txapelketa egingo da. Bertan parte hartuko dute goi mailako patinatzaileek, hala nola Catherine Marquise eta Chloe Bernardek. Aurretiazko txandak barikuan egingo dira, eta finalak, zapa-tuan, 16:00etatik aurrera. ◀

Plentziako beteranoen tenis-txapelketa, prest

Plentzia Tenis Klubak antolatuko du Plentzia Hiriaren Saria, datozen ekainaren 26tik uztailaren 1era. Lehiaketa horretan, 35 urtetik gorako tenis-jokalari beteranoek parte har dezakete, betiere federazioaren lizentzia egunean badaukate. Plen-

tzia Tenis Klubak eguen honetan jakinaraziko du Plentzia Hiriaren Sariaren hirugarren edizioan segituko duen partiden ordena. Dena den, argitu du partida denak 18:00etatik aurrera jokatuko direla, Marta de la Rica epailearen begiradapean. ◀

Alex Mumbrú Leioan egongo da, campusean

Alex Mumbrú Bilbao Basket taldeko jokalaria ezaguna Leioan izango da datorren astean, astelehenetik domekara, ekainaren 26tik uztailaren 2ra. Izan ere, 15. zenbakiko jokalaria bere izena daroan campusean jardungo du, Askartzan.

Mumbrú saskibaloia erabiltzen du 6 eta 16 urte bitarteko gazteei giza eta kirol-formakuntza emateko. Besteak beste, Mumbrú jokalaria gisa bizi izandako esperientziak partekatuko ditu campusean. Daborduko, leku denak agortu dira. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazagetaria.com



Hondartza-boleibolean, onenak



Getxoko Aixerrota taldeko jokalariek oso lan polita egin zuten Donostian. © GETXO AIXERROTA BKT

Getxoko Aixerrota Boleibol Kirol Taldeak bolada onean jarraitzen du. Orain dela aste batzuk, Plentzian lortu zuten brontzea Euskadiko 21 urtez azpiko Hondartza-boleibol Txapelketan, Maider Santxo Soto eta Katalin Garcia Lopategi bikoteari esker. Daborduko, beste hiru metal jantzi dituzte beste txapelketa bitan: maiatzaren bukaeran, bikote berak irabazi zuen 19 urtez azpiko Euskadiko Txapelketa, Sestaoko La Benedicta kiroldegian. Gainera, set bat ere galdu barik lortu zuten balentria. Bide horri eutsiz, Aida Etxebarria eta Nerea Izaguirre Getxoko Aixerrotako jokalaria ere nagusitu ziren Euskadiko Hondartza-boleibol Txapel-

ketan, ekainaren 11n, Donostiako Zurriola hondartzan. Galdakao Boleibol Taldean hezitako bikoteak senior mailan lortu zuen txapelketa. Halere, talde getxoztarrak ez zituen bakarrik Hego Uribeko fitxaketak zelairatu. Euren batera, Santxo eta Garcia ere lehiatu ziren; horiek hirugarren lekuan geratzea lortu zuten. Donostian, Etxebarria eta Izaguirre euren arerioen oso gainetik ibili ziren, eta set denak irabazi zituzten. Finalean ere, 2-0 nagusitu zitzaizkien Nerea Ruiz eta Ohiane Gutiérrez Sestaoko jokalariei: lehenengo setean, 21-19, eta bigarrenetan, 21-15. Santxok eta Garciak Euskadi ordezkatzeko dute Espainiako gazte-txapelketan, uztailaren 20tik 23ra, Kanarietan. ◀

Elkartasun-maratoien proiektua amaitu dute

Jon Salvador atleta erandioztarrak Javi Conderi lagundu zion Rio de Janeiroko maratoian, pasa den domekan. Izan ere, Basauriko atleta paralinpikoari bakarrik falta zitzaion Brasilgo hiri horretako maratoia, Olinpiar Jokoetako eta Joko Paralinpi-

koetako egoitza denetan elkartasun-maratoi bana egiteko. Javi Condek 2010ean abiatu zuen erronka hori eta, daborduko, 29ak amaitu ditu. Horieta-ko 15 maratoitan lagundu diote Salvadorrek eta Xavier Maltas atleta katalanak. 192.000 euro banatu dituzte. ◀



Salvador, Conde eta Maltas, Rio de Janeiroko maratoian. © SAUCONY

Denboraldi bitan jokatu du Iraizozek Gironan

Gorka Iraizoz Athleticeko atezain ohia futbol-taldez aldatu da, baina ez kolorez. Berangoko bizilagunak Gironaren kolore zuri-gorriak defendatuko ditu datozen denboraldi bietan. Montilivi futbol-zelaian, bat egingo du Jonas Ramalho lamiakoz-tarragaz. Hala, Iraizozek Lehenengo Mailan segituko du, Girona igo baita. Iraizozek hamabi denboraldi daramatza Lehen Mailan, eta 444 partida jokatu ditu. Azken hamar urtean, Athleticean atea zaindu du. Talde katalanak ekainaren 15ean aurkeztu zuen jokalaria, Montiliviko instalazioetan. ◀

info+: Hiruka.eus/kirolak

Getxo Arrauneko beteranoak, nagusi Armintzan

Getxo Arrauneko beteranoek egundoko denboraldia egiten dabilta aurten. Hala, ekainaren 10ean beste behin nagusitu ziren, Armintzako X. Beteranoen Traineru Estropadan, ABE ligarako bosgarren estropadan. Denera, ontzi getxoztarraren laugarren garaipena da, bost estropada jokatu ondoren. Dena den, bandera denak Uribe Kostan geratu dira, Kantabriako Pontejos herrikoa Arkoteko beteranoek eskuratu baitzuten. Getxoztarrak, berriz, bata bestearen ostean jaso zituzten Angelu, Donostia, Orio eta Armintzakoak. Hurrengoa Sestaon jokatu da, zapatu honetan. ◀

Lutxana, Getxo Arraun eta Arkote estreinatu dira

Daborduko, abian da arraun-denboraldia. Pasa den domekan estreinatu zen KAE2 Liga, Erandioko uretan, eta San Juan B taldeak eskuratu zuen Erandioko bandera. Erabat gipuzkoarra izan zen podiuma, horien ostean Donostiarra B eta Hibaika sailkatu baitziren. Etxeko taldeak, Lutxana Arraun Elkarteak eskifaiak, erakutsi zuen goian egoteko borrokatuko duela, laugarren postua bereganatuta. Getxo Arraun, berriz, 6. sailkatu zen. Egun berean, Santurtzin, *Plentzitarra* ontziak ez zuen estreinaldi ona izan. Arkotekoak 11. sartu ziren Santurtzik irabazitako KAE1 Ligako estropadan. ◀

Raspas eta Getxo Arraun, irabazle, autonomikoan

Areetako Raspas arraun-elkarteak 11 domina lortu zituen joan den ekainaren 10ean, Legutioko Urtegian jokaturako Euskadiko Aulki Mugikorrerako Txapelketan, Absoluto, Senior Gazte eta Beteranoen mailetan. Hala, Raspas Euskadiko talderik onena izendatu zen Araban jokaturako proba horretan. Bestalde, Getxo Arraunak beste bost domina irabazi zituen, eta taldekako hirugarren tokian sailkatu zen. Eskualdeko beste arraun-taldeei dagokienez, Lutxanak eta Arkotek launa domina irabazi zituzten Euskadiko txapelketa horretan. ◀

info+: Arrauna.eu



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!



Portu Zaharra Kalea 35
48901 Algorta-Getxo
Tl. 94 468 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Uztailean Getxoko Blues Jazzaldiaz gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Blues jaialdiko kontzertuetarako sarrerak lortu gura badituzu, uztailaren 2a (domeka) baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zerbitzuak

+ Guardiako farmaziak, uztailaren 5era arte

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Ekainaren 29an (egunean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz; uztailaren 1ean (zapatuan), 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; ekainaren 30ean (barikuan) eta uztailaren 2an (domekan), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Ekainaren 24an (zapatuan), 09:00-13:30; ekainaren 27an (martitzenean), 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00-09:00.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Uztailaren 1ean eta 2an (zapatuan eta domekan), 09:00-22:00.

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan (ekainaren 24an), 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuetan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Ekainaren 24an eta 25ean (zapatuan eta domekan), 09:00-22:00; uztailaren 1ean (zapatuan), 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Ekainaren 24an (zapatuan), 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Ekainaren 28an (eguztenean), 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuetan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik astelehenerako 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529. Ekainaren 22an (egunean) eta uztailaren 2an (domekan), 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuetan, 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; ekainaren 24an (zapatuan), 10:00-22:00; uztailaren 2an (domekan), 09:00-13:30.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00; ekainaren 25ean (domekan), 09:00-13:30.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuetan, 09:00-22:00; ekainaren 23an (barikuan), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuetan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Ekainaren 27an (martitzenean), 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Ekainaren 22an, 24an eta 30ean, eta uztailaren 1ean, 2an eta 5ean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Uztailaren 3an (astelehenean), 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Ekaineko astegunetan eta ekainaren 25ean (domekan), 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Ekainaren 24an (zapatuan), 09:00etatik aurrera, 24 orduz; uztailaren 1ean (zapatuan), 09:00-13:45.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Uztailaren 3an (astelehenean), 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik martitzenerako 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan (ekainaren 29an salbu), 09:00-22:00; ekainaren 25ean (domekan) eta uztailaren 4an (martitzena), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; ekainaren 26an (astelehenean) eta uztailaren 5ean (eguztenean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan (ekainaren 29an salbu), 09:00-22:00; ekainaren 22an (egunean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan (ekainaren 29an salbu), 09:00-22:00; ekainaren 28an (eguztenean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; uztailaren 1ean (zapatuan), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

OLGETAN
SOLAS

2017



* Familia partehartzaile guztien artean asteburuko egonaldia zozkatzeko dugu, lands etxe batean, lau pertsonentzat. Zozketa abenduan egingo da.



Faoeta - San Bernabe (ekainak 10); Erandiogikoa - Gorpuzti (ekainak 16); Kukularra (ekainak 25); Arriaga - San Trifon (uztailak 2); Goierri - San Kristobal (uztailak 9); Asua (uztailak 15); Astrabudua - San Lorentzo (abuztuak 11); Santimami (abuztuak 17); Altzaga - San Agustin (abuztuak 25); Enekuri (irailak 9); Latsana (irailak 16)



INFORMAZIO GEHIAGO
www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus
euskara@erandio.eus ☎ 9444890128



Hirukira OLGETA

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:



Etetik hurbil, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunakaz elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Zuhaitzeko etxola

Ea aurkitzen dituzun hurrengo hauek:



lore gorria



dortoka



tutua edo biberoia



erlea

Eta ondoko beste hauek:

- Txiklela ● Pelloziriren ordenagailu eramangarria ● Tximeleta bi
- Eskuargi bat ● Sagu bi ● Barraskilo bat ● Igela edo ugaraxoa
- Plastikozko ur-botila ● Hontza ● Txerrikumea ● Sugea

Itzala

Itzal hauen arteko zein da mendigoizaleari dagokiona?



MARSUN
ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA
ALANGOETA 6, ALGORTA
TEL. 944 608 222

Hiruka Zozketa!
Ilea ebakitzeko **BONUA**
familia osoarentzako.
Ekainak 30a baino lehenago,
izena eman ezazu!
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zeeer?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Alderantziz dihardu berbetan... Esaten dabilena ulertzen ez baduzu, ipini orria ispiluaren aurrean eta berehala igarriko duzu esaldia.

**ZorTzi aldeak**

Topatu irudi hauen arteko aldeak.

**ZazpiKoa**

Topatu irudi hauen arteko aldeak.



Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

**SARIA**

Ilea ebakitzeko txartel bat zozkatuko dugu, familia osoarentzat

Marsun ile-apaindegia-er, familia bereko 4 kidek (2 txiki eta 2 nagusi) ilea ebakitzeko bonu bat irabaz dezakezu

Gura baduzu, ekainaren 30a (barikua) baino lehenago helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona:

hiruka@hiruka.eus edo **944 911 337**

Zirri-marra**Arte Tailerra****Pintura****Ikastaro Bereziak**

Igandeetan txikientzako tailerrak
1 - 5 urte

Eskulanak**ZERAMIKA**

UDAKO ARTE TAILERRAK
Ekainatik Irailera
3 urtetik aurrera
09:00 - 14:00

MARRAZKETA


Anboto 2, Getxo; sarrera, Aingeruaren Etorbidetik.
Telf.: 944916186 e-mail: zirmarrarte@gmail.com

1995-2015

Lehen/Orain



Lehenengo Bizarra Lepoan (1995), UK bihurtu ostean, 10. urteurrena eta 200 zenbaki ospatu zituen, HIRUKA astekariari lekukoa emateko 2015ean.



Uribitakora

TESTUA

Beñat Vidal Gurrutxaga

DOINUA

Mutil koxkor bat

ARGAZKIA

Garazi
Lopez de Uralde Zarraga

Hiruka, lehenengotik ehungarrenera

Hirukak bere lehen alea izan zuenean gertu, jende aurrean aurkeztu zuen eta kalera agertu. Baina baten bat lar berotu zen eta amorrutan urtu. Nolabait hori adierazteko hara hor zuena zertu: paperezko den egunkari bat interaktibo bihurtu!

Boli beltzagaz idatzi zuen nonbait entzun zedin ozen. Niri sailburu bat bururatzen zait izen eta abizen, ertzaintza euskaldun ez izatea nola arrazoitzen zuen... Oinarrizkoak diren zerbitzu asko, aitortzera goazen, guk ere ordaintzen ditugu zergak euskaraz izan daitezen.

Baina euskaldunok burrukatzera ohitu al gara betirako? Gaur ospatzea merezi dugu ehungarrena dugulako. Oroitu nahi dut, lehen zenbaki hura hartuta aintzako, poztu nintzela Fredik txapela irabazi zuelako, eta lehenengoz Hirukan ere irakurri nuelako.



Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua